

LARREA

— ARABA / ÁLAVA —

Larrea herria Barrundia udalerriaren barruan dago, Aguraingo kuadrillan, Barrundiako haranean dago, Zadorra ibaiaren eskuineko ertzean. Gasteiztik 20 km-ra dago, eta haraino hertzeko, Arabako hiriburutik abiatu eta Elorriaga atetik irtengo gara, N-104 errepidea hartu, eta A-3012 bidetik jarraitzenko, Ozeta herria zeharkatuta.

Herri horri buruzko lehenengo aipamena Donemiliagako Rejako agiriak ematen du: Barrandizko barrutiaren barruan aipatzen da, dirudinez monasterioari urtean golde-burdina bat ordaindu behar ziotenen zerrendan. Berriro ageri da Jerónimo Aznar gotzainaren gutunean, Egilazko artzapez-barrutiaren barruan. XV. mendetik aurrera, Larrea mugarriz izan zen Gebara eta Oñati arteko ganboaren kokapenetan. Gebaratarrek (Oñatiko jaunak lehenengo, eta kondeak gero) aldeko leinuak izan zituzten Arabako Lautadaren eta Oñatiko Gipuzkoako lurren arteko bide nagusienetan. Leinu horietako batek, Lazarragatarrenak, Larrean eduki zuen Arabako lehenengo dorrea, eta handik Ekialdeko Lautadara eta inguruko beste lurralte batzuetara zabaldu ziren geroago, tenpluetan fundazioak, kaperak eta ezkutuak utziz. Micaela Portillaren esanetan, Larreako Lazarragatarren dorrea "Bolo" izeneko baseria da, herriaren iparrean dagoena. Larrea Martín Gil lizentziatuak bisitatu zituen herrien zerrendan ere azaltzen da, eta 1556an Arabako lurraldera egindako bisita pastoralen zehazten denez, ospitale bat, Andre Mariaren basiliza bat eta lau elizgizon onuradun zituen elizaren zerbitzura. Informazio horretatik ikusten denez, garai oparoak bizi izan zituen XVI. mendean.

Larrea es un pueblo perteneciente al municipio de Barrundia, cuadrilla de Salvatierra-Agurain, que se encuentra en el valle de Barrundia, en la margen derecha del arroyo Zadorra. Distante escasos 20 km de Vitoria-Gasteiz. Para acceder a la localidad se abandona la capital alavesa por el Portal de Elorriaga, que enlaza con la carretera N-104, y se continúa por la A-3012, pasando por el pueblo de Ozaeta.

La primera noticia que se conoce de la existencia de esta localidad la proporciona el documento de la Reja de San Millán, al aparecer citada en el elenco de aldeas contribuidoras con una reja anual, dentro del Alfoz de Barrandiz. Igualmente se manifiesta su presencia en la carta del obispo Jerónimo Aznar, dentro del arciprestazgo de Egilaz. Desde el siglo XV Larrea fue hito en las posiciones gamboinas entre Guevara y Oñate. Los Guevara, señores y después condes de Oñate, contaron con linajes adictos afincados en los caminos principales entre la Llanada Alavesa y las tierras guipuzcoanas de Oñate. Uno de estos linajes, el de Lazárraga, tuvo en Larrea su primera torre alavesa y desde aquí se extendieron, más tarde, por la Llanada Oriental y otros territorios contiguos, dejando en sus templos fundaciones, capillas y escudos. Micaela Portilla identifica la torre de los Lazárraga en Larrea, con el caserío llamado "El Bolo", al norte del núcleo de la población. Larrea aparece también en la relación de aldeas visitadas por Martín Gil, quien en su viaje pastoral por esta provincia, en 1556, constató que tenía hospital, una ermita dedicada a Santa María y cuatro clérigos beneficiados al servicio de su iglesia. De esta información se deduce que Larrea vivió momentos de pujanza en el siglo XVI.

Donemiliaga eliza / Iglesia de San Millán

ELIZAK BEREZITASUN nabarmen bat du, Araban ezohikoa den gauza bat. La oso-osorik gorde ditu jatorrizko hormak, errománikoak, eta epistolako saihetsari atxikita eraiki zen eliza berria, XVI. mendekoa, aurrekoa baino handiagoa. Ez dakigu zergatik ez zen desagertu eliza soil eta zaharra, balibide ekonomikoek eta biztanleriaren hazkundeak eliza berria eraikitzen modua ekarri zutenean.

LA IGLESIA cuenta con una notable peculiaridad, del todo infrecuente en Álava. Conserva casi completa la fábrica de su traza primitiva, románica, y adosa en su costado de la epístola la nueva iglesia, del siglo XVI, considerablemente más amplia. Se desconocen los motivos por los que la escueta y primitiva iglesia no sucumbió en el momento que los medios económicos y el incre-

Beharbada, hain txikia izateak salbatu zuen, ezin zutelako, elizatxo horren gainean, pentsatuta zeukaten neurriko eliza eraiki. Edo, beharbada, iraganari errespetua ziotelako iraun zuen, nahiz eta garai hartan hori ez zen normalena. Zutik uzteko arrazoiak ekonomikoak izan zirenik ere ez du ematen; izan ere, behera botatzeak sortuko zituen gastuak erraz berdinduko ziren material hori eliza berria eraikitze-ko erabilita. Kontua da, gaur egun bi elizak daudela zutik, bata bestearen alboan. Eliza erromaniko honek, gainera, konponketen eta zabalkundeen ondorioz itxuraldatuta dauden Arabako Erdi Aroko eliza txiki asko nolakoak izango ziren esaten digu.

Tenplu erromanikoak oinplano angeluzuzena eta burualde zuzena ditu; eraiki zen garaian egindako zabalkunde bat ere badu, nabareen erdirantz, ebanjelioko aldean. Lehen aipatu dugun moduan, egungo tenplua eliza zahar honen eskuineko saihetsari atxikita dago, eta bataiategi klasista esparru erromanikoaren barruan sartzen da; beraz, ez dakigu alde honetarantz ere zabalkundea izango zuen, ezkerrean bezala. Tenplu erromanikoa kanoi-ganga batek estaltzen du; zatiak, erdi-puntuko parpaila-arkuekin bantuta daude, eta horiek kurba bikoitzeko modiloien gainean ezarrita. Estalkia, kanporantz, harburu lisoen gainera dator; iparreko horma osoan zehar daude ikusgai, baita aipaturiko zabalkundean ere. Burualdean, itsututa dagoen leihate batzen arrastoak daude, eta ekialdean, saietera batenak.

Tenplua konpondu egin dute orain dela gutxi, zaindu gabe egonda, hormak eta estalkiak hondatuta zeuden eta,

mento de la población hicieron posible la construcción de una nueva. Acaso fue su pequeño tamaño lo que la salvó, ante la imposibilidad de poder ampliarla para conseguir la medida deseada. Tal vez perduró por el respeto al pasado, aunque tal cosa no era lo habitual en aquella época. Tampoco parece que fueran motivos económicos los que hicieron que se mantuviera en pie, puesto que el gasto de la demolición se habría sido compensado con creces con el aprovechamiento de los materiales para la construcción de la nueva iglesia. El caso es que en la actualidad ambas trazas subsisten, una al lado de la otra. Esta iglesia románica informa, además, de cómo debieron de ser muchas de las pequeñas iglesias medievales alavesas, desfiguradas hoy por subsiguientes ampliaciones.

El templo románico es una edificación de planta rectangular y cabecera recta, con un ensanchamiento del mismo momento constructivo hacia el centro de la nave, en su costado del evangelio. Como se ha indicado, el actual templo se encuentra adosado al flanco derecho de esta primitiva iglesia, invadiendo el baptisterio clasicista el espacio románico; por ello se desconoce si éste se ensancharía también hacia este lado, lo mismo que en el izquierdo. Se cubre el primitivo templo románico con bóveda de cañón, separada en sus tramos por arcos fajones de medio punto, sobre modillones de doble curva. La cubierta descansa hacia el exterior en canes lisos que, todavía hoy, se mantienen visibles a lo largo de todo el muro norte, incluso en el mencionado ensanchamiento. Se conservan también restos de un ven-




Eliza zabarraren bondarrak

Restos de la antigua iglesia



Iparraldeko altxaera / Alzado norte

Ebaketa zeharka / Sección transversal





Barrualdea

Interior

bai kanpotik, bai barrutik. Eta konponketa horietan egindako gauzetako bat eliza erromanikoa zaharberritzea izanda, oso txarto zegoen eta: lastategi moduan erabilia, ganga arrakalatuta eta itoginak eta hezetasunak zituela barru guztian.

Horrela, bada, eliza erromanikoaren estalkia egiteko, adreilu-paretek erabili ziren, gangarekiko zeharka, eta horien gainean zabaldu zuten, gero, zeramikazko taula, teila berriari eusteko. Kanporantz, harburuen gaineko harlanduzko inposta zaharberritu eta mantendu egin zuten, eta, teilitatua zurkaizteko, zurezko habe etzanak jarri. Kanpoa txukunduta dago, eta orain, hurrengorako, barrua zaharberritza eta elizkizunetarako gaur egun erabiltzen den eremuarekin lotzea geratzen da.

Testua eta argazkiak: MPG - Planoak: IAM

tanal cegado en la cabecera y de una saetera en poniente.

En fechas recientes se ha llevado a cabo la restauración del templo, ya que la falta de mantenimiento afectaba a muros y cubiertas, tanto en el exterior como en el interior. La recuperación de la iglesia románica fue uno de los capítulos de la actuación, puesto que se encontraba en pésimo estado: utilizada como pajá, con la bóveda agrietada y con filtraciones y humedades extendidas por todo el interior.

Así, para la cubierta de la iglesia románica se dispusieron tabiques de ladrillo transversales a la bóveda, sobre los que fue tendido el tablero cerámico que recibió la nueva teja. Se recuperó y mantuvo al exterior la imposta de piedra sobre canes, colocando durmientes de madera para el apeo de la techumbre. Saneado el exterior, queda pendiente, para una próxima intervención, la recuperación del interior y su conexión con el ámbito actual de culto.

Texto y fotos: MPG - Planos: IAM

Bibliografía / Bibliografía

LABORDA YNEVA, J., 2003, pp. 274-279; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 408; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1982, p. 518-519, fig. 448.